-GJHen aldeko Euskal Aliantzaren oinarria "2030 Agenda Euskadi Kontratu Sozial baterako" Adierazpena da. ([https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/alianza\\_vasca\\_ods/eu\\_def/adjuntos/Atxikimenduak-Aliantza-eus.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/alianza_vasca_ods/eu_def/adjuntos/Atxikimenduak-Aliantza-eus.pdf))

-Kontratu sozialaren ideia 2030 Agenda Euskadi Foroaren eta bertako kideen ohiko diskurtsoaren parte da.

## **Principio y metodología de Now 2030 Basque Country**

*GJHen lokalizazioarekiko konpromisoaren euskal eredu hau printzipio batean eta metodologia batean oinarritzen da.*

**•Proaktibitatearen printzipioa.** *2030 Agendarekiko konpromisoa programa propioak GJHein atxikitzea eta formalki lerrokatzea baino gehiago da. Horrek esan nahi du geure buruari galdetu behar diogula zertan aldatzen diren GJHak gure aurretik zeuden politikak eta jarduteko moduak. Horretan datza eraldatzeko gaitasuna.*

**•Zehatzaren metodologia.** *GJHek zehaztasun gehiago eta abstrakzio gutxiago behar dute. Beharrezkoa da hitzetatik ekintzetara pasatzea. Proiektua betetzera hurbilduko gaituzten proiektu zehatzetan islatzea. Kontua ez da 17 helburuetarako proiektuak izatea, baizik eta lehenetsunak eta proiektu eragileak definitzea.*

## **Amaiera**

*Now 2030 Basque Country-k konpromiso handiagoa eskatzen eta eskaintzen du. Inplikazio-eredu hori Euskadiko GJHen kokapenarekin aurkeztuz, adibidea betetzen saiatzen da. Azken helburua da 2030ean Agendak ahalik eta balantze onena ematea. 2030 orain da. Konpromisoa orain behar da.*

*2030 Agenda planetak eta gizateriak aurrean dituzten erronka handiei aurre egiteko inoiz egin den mundu mailako lankidetzak ahalegin handiena eta garrantzitsuena da. Justifikatuta dago bakoitzak bere gain hartzea dagokion erantzukizunaren eta konpromisoaren kuota. Ez dago eraginkorragoa edo kooperatiboagoa den beste metodori.*





# 3. Eusko Jaurlaritzaren jarduera nagusien laburpena

2023ko ikuspegi panoramikoa Eusko Jaurlaritzak esparru desberdinetan GJHein duen konpromisoaren mugari nagusien laburpenarekin osatzen da atal honetan.

Jardueren zerrenda horrek sei atal ditu. Lehenengo bostak bat datoz Nazio Batuek "gizateriarentzat garrantzi kritikoa duten elementutzat" jo zituztene-kin: Pertsonak, Oparotasuna, Planeta, Bakea eta Aliantzak.

## 3.1. Pertsonak

Etikaren eta giza duintasunarekiko konpromisoaren ikuspegitik, pertsonei arreta ematea da Eusko Jaurlaritzaren politika publikoen lehentasuna. 2023ko aurrekontuaren % 76 osasunera, hezkuntzara eta gizarte-politika guztietara bideratu zen. Hona hemen errealitate hori deskribatzen duten datu batzuk:

- Osasunaren arloan, azaroan Euskadiko Osasun Publikoaren Legea onartu zen. Lege horrek mugari bat ezarri zuen, Euskadiri lege-esparru eguneratu eraginkorragoa eman baitzion euskal herritarren osasuna hobetzeko, eta pandemiaren ikaskuntza nagusietara egokitu zen. Euskadiko Osasun Publikoaren Sistema egituratzen du, osasun-sistemeekin eta administrazio publikoekin koordinatuta, eta koordinazio- eta partaidetza-organo bi izango ditu: Osasun Publikoaren Euskal Institutua eta Osasun Publikoaren Erakundearteko Batzordea.

Aldez aurretik, uztailen, 2030 Osasun Plana onartu zen. Plan horrek lau helburu nagusiak zehazten ditu: haurren eta nerabeen osasun-garapena sustatzea; zahartze aktiboa eta bizitza osokoa sustatzea; euskal biztanlerian saihestu daitekeen morbi-heriotza murriztea; eta osasun-arloko desberdintasunak murriztea. Urtearen bigarren erdian, halaber, Euskadiko Osasun Mentaleko Estrategia (2023-2028) eta 2023-2027 aldirako Adikzioen Plan berria onartu dira.

- **Hezkuntzaren** arloan, abenduan Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko Legea onartu zen. Lege honen helburua da hezkuntza-trantsizio justua ahalbidetzea, euskal hezkuntza-sistema bat eraikitzea, une bakoitzeko beharrei erantzuteko eta, batez ere, prozesu inklusibo baten bidez, ekitatean, gizarte-kohesioan eta bikaintasunean oinarrituta.

**Lanbide Heziketari** dagokionez, 2023ko otsailen Lanbide Heziketako VI. Euskal Plana aurkeztu zen, bilakaera teknologikorako oinarri gisa pertsonen ezagutzaren, sormenaren eta talentuaren aldeko apustu sendoa eginez. Kontua da aurrera egitea Euskadi gizarte jasangarri eta sistema adimenduneko bihurtzeko eta euskal LH nazioarteko erreferente gisa mantentzeko. Horrez gain, 2023ko azaroan, "Imajinaezinerantz aurrera eginez" nazioarteko topaketa egin zen Donostian. Gainera, GJHak lantzeko gida praktikoa egin da Euskadiko LHko zentroetan. Dagoeneko 175 ikastetxek, 49.300 ikaslek, 4.500 irakaslek eta 23 produkzio-sektorek hartu dute parte gida horretan.

**Unibertsitatea.** Maiatzean, Gobernu Kontseiluak 2023-2026 Unibertsitate Sistemaren Plana onartu zuen. Unibertsitate-politikak definitzen, helburuak identifikatzen eta euskal unibertsitate-ekosistema osatzen duten eragileak koordinatzen dituen tresna da. Plan hori, gainera, bat dator Nazio Batuen 2030 Agendarekin, eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin konprometituta dago, gizarte oparoaren alde, eskubide- eta aukera-berdintasunarekin, eta ingurunea errespetatzen du.

Unibertsitatearen esparruan, halaber, "2030 Agendaren eta GJHen Integrazio Estrategikoa, Jarraipena eta Komunikazioa" graduondokoaren lehen edizioa bultzatu zen, hiru euskal unibertsitateekin lankidetzan. Ikastaro horrek jarraipena izango du 2024an.

- **Berdintasunaren** arloan, nabarmentzekoa da EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundearen areko III. Akordioa. Akordio horren helburua

da tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta ematen dieten erakundeen arteko koordinazioa, haiei babes sanitario, polizial, judizial eta sozial osoa bermatzeko. Era berean, Eusko Jaurlaritzak tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren Euskal Legearen oinarriak prestatu ditu. Lege hau mugarririk garrantzitsua izango da berdintasunarekiko eta diskriminaziorik ezarekiko dugun konpromisoan, lege-esparru sendoa eta bateratzailea eskainiz.

•**Gizarte-zerbitzuei** dagokienez, Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa onartu zen. Plan horren helburua da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari 2022-2026 aldirako ahalik eta efikazia eta efizientzia handiena lortzeko beharrezkoak diren prestazioak, zerbitzuak, programak eta bestelako jarduerak planifikatzea. Pertsonen gizarte-zaintzan oinarritzen den plana da, gizarteratzea ahalik eta autonomia handienarekin sustatzera bideratuta dagoena.

•**Erronka Demografikorako** 2030 Euskal Estrategiaren barruan, 2023ko martxotik aurrera, 3 urtera arte, seme-alaba bakoitzeko 200 euroko laguntzak jarri dira abian eta, familia ugaria bada, hilean 100 euroko prestazioa, 3 urtetik 7 urtera.

2023-2024 ikasturtearen hasierarekin, Haurreskolak Partzuergoko eskolak doan dira 0-2 urteko etapan.

Azaroaren 28tik 29ra bitartean Euskal Hiria kongresua egin zen Donostian, "Elkarguneak: erronka emergenteak, erronka sozialak eta lurraldea" lelopean. Hirigintzan eta lurralde-antolamenduan adituak diren pertsonen topaketan, azalartzen ari diren bost erronkari buruz eztabaidatu zuten. Erronka horiei gizarte modernoek aurre egin behar diete eta estrategia eta politika publikoetan duten eragina aztertu zuten. Horien artean, aldaketa demografikoa, ekintza klimatikoa eta trantsizio energetikoa nabarmendu behar dira.

•**Gazteriar** dagokienez, 2023ko martxoaren 21ean Gazteen Emantzipazioa laguntzeko 2030 Euskal Estrategia onartu zen. Bost arlotan (enplegua, etxebizitza, errenta, kohesioa eta erresilientzia) 10 traxzio-proiektu biltzen ditu. Bere berrikuntzetako bat da hilean 300 euroko laguntza ematea, bi urtez, 25 eta 29 urte bitarteko gazteen emantzipazioa laguntzeko, 2024ko otsailean jarri dena indarrean.

•**Hiri Agendar** dagokionez, 2023ko otsailean, ONU-Habitat erakundeak, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin batera, mundu osoko 102 ordezkari bildu zituen, 11. GJHren aurrerapenaren laburpen-txosten bat egiteko. Era berean, abenduan Bultzatu 2050-Euskadiko Hiri Agendaren bigarren jarraipen-txostena aurkeztu zen, eta aurten arreta berezia jarri du mugikortasunari eta hiri adimendun eta jakintsuei dagokienez.

•**Segurtasunaren** arloan, azaroan onartu zen Suteen Prebentzio eta Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuak Arautzeko Legea, euskal gizartearen segurtasun-mailak optimizatzen lagunduko duen araudi berria.

•**Etxebizitzaren** arloan, 2023an zehar, Euskadik Next funtsetako etxebizitzaren eta eraikinen birgaitze energetikoaren helburuak lortu ditu, eta 130 milioi euro inguru konprometitu ditu 15.600 etxebizitza baino gehiagoko jarduketak laguntzeko.

•**Gobernantzaren** ikuspegitik, Gobernu Kontseiluak EAEko sektore publikoko Datuen Gobernantzarako Estrategia onartu zuen abenduan. Printzipioak eta arauak datuen gobernantzari eta adimen artifizialeko sistemari buruzko Manifestu etikoan definituta daude; besteak beste, inklusibotasuna, irisgarritasuna, ekitatea, osotasuna eta diskriminaziorik eza nabarmentzen dira.

Gobernantzaren arloan ere, Gobernu Kontseiluak azaroan onartu eta Eusko Legebiltzarrerara bidali zuen Gardentasun Legearen proiektua. Lege-proiektu honek Euskadiren ibilbide zabala bermatzen du eta prest uzten du hurrengo Legealdirako Gobernu Onaren arloan.

•**Kulturari** dagokionez, martxoan Kultura 2028 Plan Estrategikoa onartu zen, gizartearen kulturaren zentraltasun handiagoa bilatzen duena. Planak kultura aldarrikatzen du, herrialde bat eta komunitate bat eratzeko eta kohesionatzeko ezinbesteko elementu gisa.

•**Kirolari** dagokionez, martxoan Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Legea onartu zuen. Arau berri horrek urte hauetan guztietan jarduera fisikoak eta kirolak izan dituzten aldaketak islatuko ditu, eta egungo erronkei eta beharrei erantzun die.

•**Euskararen** esparruan, 2023an zehar Euskararen Aholku Batzordean "Aroa. Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoak". Dokumentu honen helburu nagusia da gizarteak azken urteotan izan dituen aldaketei erantzutea eta, egungo testuinguru eleaniztunean, euskal hiztunen aktibo eta ahaldunduen komunitatea indartzea, bidezko gizarte bat eraikitzeko.

## 3.2. Oparotasuna

Pandemiaren eta Ukrainaren inbasioaren eta Gazako gatazkaren ondorioak gorabehera, Euskadi positiboki erantzuten ari da. 2024an, BPGd-a % 2,1 haziko dela aurreikusten da; industriak susperraldi-zantzu argiak ditu; langabezia minimo historikoetara murriztu da, eta Gizarte Segurantzako kotizatzaileen hazkundea 1.000.000 izan zen abenduan, Euskadiko historiako handiena. Hona hemen politika publikoek suspertze sozioekonomiko horretan lagundu duten tresnetako batzuk:

- **Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Berpiztu Plana**, 2020-2024 aldian 3.200 milioi eurotik gorako inbertsioa egiten duena. Pandemiaren aurreko egoera berreskuratzen laguntzen ari da. Hazkunde-itxaropenak positiboak dira 2024rako ere. Langabezia % 7an kokatu da, 2024rako herri-helburu gisa ezarritako % 10etik behera.

- **Lanaren eta enpleguaren** arloan, abenduan Enpleguari buruzko Legea onartu zen, eta horrek Euskadiko politika publiko guztietan lan duinaren irizpidea sartzerara behartzen du. Legeak eskubide subjektibo gisa jasotzen ditu lan-orientazioa eta -aktibazioa, leihatila eta lan-historia bakarrak, gobernantza partekatua eta udalen funtsezko zeregina.

- Otsailean, Eusko Jaurlaritzak 700M€-ko **Euskadiko VII. Bonu Jasangarria** jaulki zuen, zazpi aldiz eskari handiagoarekin. Eragiketa honek inbertitzaileen babes sendoa erakusten du, % 3,5eko kupoi finakoarekin 10 urtera. Horrela, Eusko Jaurlaritzak bonu jasangarrien merkatuaren garapenean paper garrantzitsua betetzeko asmo sendoarekin jarraitzen du, eta Euskadiren ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-erronkei aurre egiteko finantzaketa arduratsu eta eraginkorra sustatzeko.

- **Industriaren** esparruan, abenduan, 2025ean Gasteizen Automobilgintzako Fabrikazio Aurreratuko Ikerketa Zentroa sortzeko Akordioa gauzatu zen. Eusko Jaurlaritzak Basque Automotive Manufacturing Center-Automobilgintzako Fabrikazio Aurreratuko Teknologia Garatzeko Euskal Zentroaren (BAM) proiektua onartu zuen. Proiektu horrek ekoizpen-egitura eraldatzen lagunduko du, automobilgintza-ren sektorearen balio-katearen lehiakortasuna eta iraunkortasuna bultzatuz.

- **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana Euskadi 2030 (ZTBP 2030)** planari dagokionez, Euskadi berrikuntza handiko eskualde gisa indartu zen Europako Batzordearen "Regional Innovation Scoreboard 2023" delakoaren arabera, 21 postu aurreratuz eta "Bikaintasun-poloa" izendapena mantenduz. Ikerketa eta Garapeneko autonomia-erkidegoen buruan jarraitzen du, BPGren gaineko % 2,32ko inbertsioarekin, Eurostaten arabera, Europako % 2,27ko batez bestekoaren gainetik.

RIS3 arloetako I+G inbertsioen jarraipenaren ondorioz, GJHei lotutako gizartearen erronka nagusiekin lotutako gaietan, hazkunderik handienak, 2019aren aldean, osasunarekin eta trantsizio sozialarekin lotutako I+Gn gertatu dira (+% 29,6), eta, ondoren, trantsizio energetiko-klimatikoa (+% 25,7) eta trantsizio teknologiko-digitala (+% 17,7). Genero-berdintasunaren erronkari dagokionez, 2022an ikertzaileen % 36,3 emakumeak ziren, Europako % 33,7ko batez bestekoaren gainetik. Etorkizunari begira, 2024an Eusko Jaurlaritzak 700 milioi euro baino gehiago bideratuko ditu I+G+b sustatzeko programetara, kopuru errekorra.

Martxoan **Basque Quantum** proiektua aurkeztu zen. Euskadik IBM Quantum System One ordenagailu kuantikoa hartuko du, eta IBM buru duen ikerketa kuantikoko nazioarteko aliantza baten seigarren bazkidea izango da. Akordio horrek 120 milioi eurotik gorako inbertsioa ekarriko du.

- Martxoan, halaber, **Energy Intelligence Center zentroa eta Euskadiko Parke Teknologikoen Abanto Campus berriaren egoitza** (Ezkerraldea-Meatzaldeako Parke Teknologikoa) hartzen dituen eraikina inauguratu ziren. 70 milioi euroko inbertsioa izango duen campus berria funtsezko pieza izango da Hidrogenoaren Euskal Korridorea bezalako proiektu estrategikoak garatzeko, Hidrogenoaren Euskal Estrategiaren barruan.

- 2023an, **Cyberzaintza** sortu zen, Euskadin ziberdelinkuentziari modu integral eta zeharkakoan aurre egiteko agentzia berria. Agentzia berriak hiru arlotan lan egingo du nagusiki: ziberdelinkuentzian, inpaktu handieneko mehatxuen gaineko ekintzak lehenetsiz, hala nola iruzurrak eta abusuzko edukia; azpiegituren eta datu publikoen babesean, erakundeen arteko koordinazioa eta gaitasun publikoen aprobetxamendu eraginkorra sustatuz; eta enpresen azpiegituren eta datuen babesean. Azken kasu horretan, Eusko Jaurlaritzako ekonomia sustatzeko taldearekin koordinatuta, gero eta digitalizatuagoa den euskal ekonomiaren oparotasunari eustea eta indartzea ahalbidetuko duten ingurune seguru eta erresilienteagoak izango dituen enpresa-kultura bultzatuko du.

• **Turismoaren eta merkataritzaren** esparruan, irailean onartu zen Turismoaren eta Merkataritzaren 2030 Plan Estrategikoa. Estrategia horren ezaugarri nagusia da Euskadik konpromiso irmoa duela turismo jasangarriarekin, hiru alderdietan: ingurumenezkoa, soziokulturala eta ekonomikoa. Horretarako, Estrategia 4 ardatzetan, 16 ildo estrategikotan eta 32 proiektutan oinarritzen da. Palanka ardatzak helmuga, industria, marketina eta gobernantza dira.

### 3.3. Planeta

Basque Green Deal ereduaren bidez, Eusko Jaurlaritzak bat egin zuen Europako Itun Berdearekin. Etorkizun jasangarriagoa lortzeko ibilbide-orria da. Emisioak murrizteko eta energia berriztagarriak sortzeko helburuak jasotzen ditu, baina ez da eremu horietara mugatzen, industriarekiko eta teknologiarekiko eredu ekonomiko gisa proiektatzen da palanka nagusi gisa, zientzia, teknologia, ekonomia zirkularra, industria, trantsizio energetikoa edo elikadura-katea bera helburu berdinarekin lerroka daitezten: garapen justua eta jasangarria.

• **Trantsizio energetikoaren** eremuan, Euskadiko Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana oso modu positiboan ari da aurrera egiten. 2024rako planifikatutako ekintzen % 91 hasi dira, eta horien gauzatze-maila % 49koa izan da. Planean aurreikusitako jarduketek, klima-aldaketaren erronkari aurre egiten laguntzeaz gain, jarduera ekonomiko jakin batzuk bultzatuko dituzte, arintze- eta egokitzapen-inbertsio gisa, Euskadiren garapen ekonomikoari lagunduz.

• Maiatzean, Eusko Jaurlaritzak Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Lege-proiektua onartu zuen, Euskadin neutraltasun klimatikoa lortzeko 2050a baino lehen. Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legeak berotegi-efektuko gasen emisioak 2050era murrizteko helburua lortzeko, eraldaketa-prozesuaren erritmoa ezartzen da, nazioarteko, Europako eta Estatuko jarraibideekin bat datorrena eta Euskadiko testuinguru sozioekonomikora egokitzen dena.

• **Klima-aldaketari** dagokionez, Dubaiko COP28an Tokiko Gobernuen eta Udal Agintarien sarearen adierazpen bat sinatu da. Adierazpen horrek 40 gobernu eta eskualde-sare baino gehiagoren ahotsa batzen du –horien artean Euskadi buru duen Regions4–, eta munduko ekintza klimatikoa bizkortzea eta areagotzea eskatzen du.

• **2030erako Euskadiko Ingurumen Esparru Programaren barruan (IEP 2030)**, martxoan aurkeztu ziren arazo globalei ingurumenaren ikuspegitik heltzen dieten 8 proiektu eraldatzaileak, jarduera jasangarriak sortzeko ekintza disruptiboak gauzatu, administrazioa, enpresak eta herritarrak inplikatu, eta merkataritza, hezkuntza, osasuna, finantzak edo lurralde-antolamendua bezalako sektoreetan, besteak beste.

2030 Agendaren ikuspegitik, *Jasangarritasunaren zerbitzura dagoen berrikuntza soziala sustatzearen* proiektua nabarmentzen da. Proiektu honek jasangarritasunaren arloan gizartearen parte-hartze aurreratuko eredu bat bultzatzen du hainbat prozesuren artean, gizarte-erabakarako eredu berritzaileak garatuz.

• Guztira 14 udalerrri eta eskualde batu dira Euskadin trantsizio klimatikoaren eta energetikoaren aldeko tokiko ekintza sustatzeko estrategia bateratuan, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) eta Ithobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak bultzatuta, Udalsarea 2030 Udal Jasangarrien Euskal Sarearen eta LIFE IP Urban Klima 2050 proiektuaren laguntzarekin.

• **Deskarbonizazioari** dagokionez, irailean Gobernu Kontseiluak onartutako Industria Deskarbonizatze Laguntzen Programak hamar milioi euro bideratzen ditu berotegi-efektuko gasak murrizten dituzten instalazioetan inbertsioak sustatzera. Laguntza-programa horrek inbertsio-erabakiak aurreratzea eta euskal industriari laguntzea ahalbidetuko du, klima-neutraltasuneranzko trantsizioko testuinguru europar eta global batean lehiakorra izaten jarrai dezan.

• **Elikadurari** dagokionez, EAEko elikagaien sektoreak packaging jasangarriaren erreferente izan nahi du, eta bere aurrerapenak azaldu ditu 2023ko abenduan egindako “Elikagaien Ontzien eta Bilgarrien Berrikuntzarako I. Topaketa”. Bestalde, ELIKER Kalitatezko Elikaduraren Zentroa enpresen garapen jasangarria sustatzeko aurten garatuko dituen bost proiektuak aurkeztu ditu.

### 3.4. Bakea

Gerraren eta 70eko hamarkadaren amaierara arteko diktaduraren esperientziak, lehendabizi, eta, hainbat hamarkadatan terrorismoak, indarkeriak eta giza eskubideen urraketek mende honen hasiera arte, ondoren, Euskadiko bakea euskal gizarte osoarentzako ondasun gorena izatea eragin dute. Gobernuak eremu horretan egiten duen ekintzak bizikidetzaren kultura defendatzearen, sustatzearen

eta hedatzearen alde egiten du, indarkeriak eragingandako kaltearen bidegabekeriaren memorian, giza eskubideen errespetuan, pluralismoan eta printzipio demokratikoetan oinarrituta. Hauek dira 2023an eremu horretan izandako mugarrietako batzuk:

- Irailean Euskadiko **Memoria Historikoaren** eta Demokratikoaren Legea onartu zen. Helburua da gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen erreparazio morala eta oroimen pertsonala eta familiarra, soziala edo kolektiboa, berreskuratzea, arrazoi politikoak, sindikalak, ideologikoak edo erlijio-sinesmenekoak direla medio, eta balio eta printzipio demokratikoak sustatzea, gerra zibila, diktadura frankista eta demokraziarako trantsizioa barne hartzen dituen aldian, 1978ko Konstituzioa indarrean sartu arte.

- **Bizikidetzaren** arloan, kasu honetan komunitate musulmanarekin batera, 2023ko urtarrilean ADOS Batzordearen 2023-2026 aldirako jarduera-programa onartu zen. 2018tik, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan aritzeko Jarduera Programa bat du. Haren garapenaren ardura ADOS Batzordeak hartzen du, erakundeen arteko lankidetzarako gune bat, non Euskadiko komunitate islamikoetako erreferente diren pertsonak parte hartzen duten. Bere jarduera-planak hiru eremutan esku hartzea planteatzen du: lankidetz handiagoa, sozializazio handiagoa eta komunikazio handiagoa.

- **Justizia Errestauratiboaren** esparruan, azaroan, Nafarroa, Euskadi eta Katalunia "justiziaren arloko lurralde errestauratibo" gisa definitu ziren. Hiru justizia-administrazioek adostutako dokumentuan honako hau azpimarratzen da: "justizia errestauratiboa pertsonen bizitzatik hurbilago dagoen justizia da, eta bidegabearen tratamenduan aktiboki parte hartzeko gaitasuna ematen die. Biktimarengan erreparazio-efektua balio pertsonal handikoa da, baina, gainera, eragin positiboa du gizarte osoan".

- **Ukrainako** errefuxiatuak hartzea. Errusiako armada Ukrainan sartu zenetik (2022ko otsailaren 24tik), Eusko Jaurlaritzak kontingentzia-plan bat jarri zuen abian Euskadin, Ukrainatik etorritako lekualdatuak hartzeko, eta jarraipen-mahai bat hirugarren sektoreko erakundeekin. 2023an, Planak aktibo jarraitu du, eta, une honetan, Ukrainatik datozen 1.000 haur daude matrikulatuta euskal hezkuntza-sisteman; orain arte, 4.500 pertsonak baino gehiagok eskatu dute aldi baterako nazioarteko babesia Euskadin, eta 3.200 pertsonak eskatu dute osasun-txartela.

- **Gazarekiko** elkartasuna. Urriaren 24an, Ekialde Hurbileko eta Ertaineko gatazkaren ondorio humanitarioen eta sozioekonomikoen jarraipena egiteko sailen arteko mahaia. Helburu hauek ditu: lehenik eta behin, eskura dagoen informazioa partekatzea eta baloratzea, Ekialde Hurbileko eta Erdialdeko gatazkaren egoeraren, bilakaeraren eta ondorioen jarraipen estua egiteko; bigarrenik, Euskadik krisi humanitarioari aurre egiteko egin ditzakeen ekarpenak proposatzea, baloratzea eta, hala badagokio, artikulatzea, bai tokian bertan, bai errefuxiatuak hartzeko programetan parte hartu behar izanez gero; eta, hirugarrenik, euskal gizartean eragin negatiboa izan dezaketen barneko ondorio sozioekonomikoak aztertzea, eta, hala badagokio, ekarpen horiei aurre egiteko neurriak eta jarduketak baloratzea.

UNRWA Nazio Batuen Agentziak egindako "Hasierako larrialdi-deiari" erantzunez, Eusko Jaurlaritzak ekarpen bana egin du urrian eta abenduan, 617.000 euroko balioarekin.

Azaroan, Gazako 26 pertsona hartu zituen Euskadik, lau familiatakoak, eta haiekin batera integrazio-rako laguntza- eta aholkularitza-prozesu bat egin du.

### 3.5. Aliantzak

Gobernantza-eredua eta lan-metodologia funtsezkoak dira garapen jasangarriaren betetze-mailari buruzko balantze on bat egin ahal izateko. Nola delakoak eragin erabakigarria du emaitzetan zeren gainean. Planteatutako erronken dimentsioak eta sakontasunak aliantza- eta lankidetz-estrategia eraginkorrak behar dituzte.

2021ean, Eusko Jaurlaritzak **2030 Agenda Euskadi Foroa** sortzeko Dekretua onartu zuen. Organo horrek 2030 Agendaren gobernantza partekatua bultzatzen du EAEko erakunde guztien eta gizarte-eragileen artean. Osoko Bilkura bat, Batzorde Iraunkor bat eta bost Lantalde ditu: Gobernantza, Euskadiko Hiri Agenda Bultzatu 2050, Eraldaketa Soziala, Eraldaketa Energetiko-klimatikoa eta Eraldaketa Ekonomiko-digitala, bai eta Guneak Ekimena ere. Hori da GJHen kobernantzaren esparru nagusia Euskadin.

- 2023an, 2030 Agenda Foroko organo bakoitzak 2022eko jardueraren memoria eta helburu espezi-fikoen definizioa eta 2022rako **kudeaketa-plana** onartu zituen.

- Urriaren 25eko Foroaren Osoko Bilkuran, EAEko 2030 Agendan Garapen Jasangarrirako 18. Helburua sartzea onartu zen, hizkuntza- eta kultura-aniztasunari buruzkoa. Horrela, Euskadik hizkuntzak eta kul-

turak garapen jasangarrian eta mundu gizatiarragoa, bidezkoagoa eta orekatuagoa lortzean duten rol espezifikoak aldarrikatzea proposatu du, hizkuntzak eta kulturak 2030 Agendaren Garapen Jasangarri-rako 17 Helburuei egiten dien ekarpena definituz. Lan hori Elhuyar eta REDS erakundeekin lankidetzan egin da.

- 2023ko urriaren 2an, GJHen aldeko Euskal Aliantza eratu zen, eta 90 gizarte-erakunde baino gehiagoren "2030 Agenda Euskadi Kontratu Sozial baterako" deklarazioari atxiki zitzaion. Horren bidez, erakunde horiek 2030 Agenda garatzeko ahaleginak bateratzeko konpromisoa hartzen dute lehentasuntzat. Konpromiso horrek eskatzen du gizarte-eragileen eta erakundeen arteko lankidetzarako eta kontuak emateko esparruak indartzea.

- Eusko Jaurlaritzak, EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearekin batera, 2030 Agendaren Udalentzako Tresnen Kutxa aurkeztu zuen urrian. Horren barruan, hainbat aukera jasotzen dira, hala nola prestakuntza-ikastaroak, gidak edo lan-tresnak, 2030 Agenda udaletan ezartzen lagun dezaketenak.

# 4. Balio espezifikoko beste ekarpen batzuk 2023an

## 4.1. Eusko Jaurlaritzaren trakzio-konpromisoak eta proiektu adierazgarriak

2030 Agendaren Lehenetasunen Euskal Programaren laugarren ardatzak 7 trakzio-konpromiso ezartzen ditu, eta horiei 7 proiektu adierazgarri lotzen zaizkie. Helburua, alde batetik, politika publiko guztietan eragiteko gaitasuna duten ekimenak identifikatzea eta bultzatzea da; eta, bestetik, GJHeK zer esan nahi duten praktikan eta zehazki azaltzea gizarteari. Hona hemen proiektu horietako bakoitzaren egoera:

I. Trakzio-konpromisoa	Proiektu adierazgarria
Pobrezia eta gosea desagerraraztea, desberdintasunak murriztea eta bazterkeria prebenitzea.	Ekitatea proiektua

**-Ekitatea proiektua.** Desberdintasunaren aurrean zentzu-batasun bera duten zazpi programaz osatuta dago. DSBE eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak bezalako ohiko laguntzekin batera, aurrekontu handiagoa ematen die, aparteko programekin premia larriko egoeren aurrean. Zazpi programak martxan daude, eta egutegiko helburuak betetzen ari dira:

- 2022ko abenduaren 22an onartu zen Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege berria.
- Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Programa (GLL). 2020an 44 milioi euro gauzatu ziren, eta 2023an, berriz, 50.
- Azken Sarea Indartzen programak kolektibo kalteberen oinarritzako premiak asetzen ditu. Besteak beste, Ukrainatik etorritako 1.633 bizikidetza-unitateri laguntzea ahalbidetu du.
- Lehen Urratsa programa, etxerik gabeko pertsonentzako bizitoki- eta integrazio-aukerak sustatzen dituena. Familia-sarerik gabeko gazteei laguntzeko Trapezistak programak 450 pertsona artatu ditu dagoeneko.
- Aukerak Suspertzen programa, eskolaz kanpoko hezkuntza-laguntzarako. 2023an, 3.710 haur eta nerabe artatu ditu, eta Euskadiko 90 udalerritara iritsi da.
- Euskarri programa: zazpi jarduera-ildo garatzen ditu zaugarritasun-egoeran dauden adingabeak eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko.
- Inklusiorako V. Euskal Plana 2022-2026. 2023ko ekainean, programa eragilea onartu zen, pailanka-politikekin, hobekuntza-jarduerekin eta proiektu esperimental eta berritzaileekin.

II. Trakzio-konpromisoa	Proiektu adierazgarria
Hezkuntza inklusiboan sakontzea, gizarte kohesionatuagoa, solidarioagoa eta iraunkoragoa sustatzeko.	Hezkuntzaren auzolana proiektua. Guztiontzako hezkuntza

**-Hezkuntzaren auzolana proiektua.** Zeharkako proiektu bat da, hezkuntza-etapa guztietan ekimenak dituena eta kolektibo kalteberenei arreta berezia eskaintzen diena. Hiru ardatzetan esku hartzen du: (1) ekitatea eta berdintasuna, (2) aniztasunarekiko arreta eta (3) gizarte-kohesioa eta elkartasuna. 98 helburu, zeharkako 48 ekintza eta horiei lotutako adierazleak ditu, betetzen direla bermatzeko. Kanpo dimentsioan, eta eLankidetzarekin (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia) lankidetzan, Nazio Batuen Connect MySchool trukatzeko programak Malawin aurrera jarraitzen du.



III. Trakzio-konpromisoa	Proiektu adierazgarria
Klima-aldaketa indartzea: (I) ekosistemak eta biodibertsitatea kontserbatzea, leheneratzea, eta (II) deskarbonizazioa eta energia berriztagarriak.	Energia-Ekiola + Klima-Ondarea proiektua

**-Ekiola proiektua.** Herritarrek energia berriztagarriak sortzen parte hartzea sustatzen du, udalerrri eta eskualdeetako eguzki-parkeen bidez, kooperatiben bidez. Eratutako 15 kontsumo-kooperatibetik, 3k eguzki-instalazioaren obrak ia amaituta dituzte, eta gainerakoak garatzen ari dira. Hala ere, Euskadin energia berriztagarrien hedapena beharrek planteatzen dutena baino erritmo motelagoan doa.

**-Klima-Ondarea proiektua.** Bi jarduera-eremu ezartzen ditu natura-baliabideak modu jasangarrian erabiltzeko eta zerbitzu ekosistemikoak hobetzeko: Txingudiko badia eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba. Txingudin, aurreikuspenen arabera, San Lorentzo urmaela 5,5 hektareatan hustuko da, paduraren habitata berreskuratzeko. 2024aren amaieran amaituko da. Urdaibaiko "La Tejera" eremuan 30 hektarea padura berreskuratzeko aurrera jarraitzen du. Gautegiz Arteagaren jarduerak ere martxan daude oraindik.

IV. Trakzio-konpromisoa	Proiektu adierazgarria
Ekosistema berde eta inklusiboko hiria, mugikortasuna eta hirigintza sustatzea.	Opengela proiektua

**-Opengela proiektua.** 2026ra arte, bost auzotako eremu behartsuenetan esku hartzea proposatzen du: Otxarkoaga (Bilbo), Txonta (Eibar), Aramotz (Durango), Basaundi (Lasarte-Oria) eta Pasaia. 2023an zehar, proiektuari buruzko AMIA bat egin da. Proiektuaren zeharkakotasunak eta proiektua finantzatzeko baliaabideak finkatzeak dakartzan zailtasunak gorabehera, inpaktu positibo argiak identifikatu dira osasunaren, enpleguaren eta pobrezia energetikoaren murrizketaren arloan.

V. Trakzio-konpromisoa	Proiektu adierazgarria
Osasun publikoa partekatzea, pertsona guztiengana iritsiko den ondasun partekatua, tokikoa eta globala den aldetik.	Osasun Globala Proiektua

**-Osasun Globala proiektua.** Lankidetzaren hitzarmena, Osasun Sailaren (Osakidetza) eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren artekoa. 2022an, Osasun Lankidetzako Programa jarri zen abian Guinea Bissaun, Simão Mendes Ospitale Nazionalarekin, eta osasuneko eta antolaketako langileak lekualdatu dira. Era berean, 2021., 2022. eta 2023. urteetan, Eusko Jaurlaritzak COVAX mekanismoari dohaintzak egin dizkio, txertaketa solidario eta global baterako, 1.600.000 euroko zenbatekoarekin, eta herrialde behartsuetan hiru milioi txerto gehiago banatzea erraztu du.

VI. Trakzio-konpromisoa	Proiektu adierazgarria
Ekonomian eta enpresan jasangarritasun-eta erantzunkidetasun-oinarriak ezartzea eta garatzea.	Basque Ecodesign Center proiektua

**-Basque Ecodesign Center proiektua.** Ekonomia zirkularreko metodologiaren eta proiektu berritzaileen pilotajea bultzatzen du. Euskadiko 18 enpresa handi batu dira: 170.000 enplegu eta 53.000 milioi euroko fakturazioa. Gaur egun 40 proiektu daude martxan. Proiektu horrek babesa ematen dio hezkuntza-eremuari, unibertsitateko eta lanbide-heziketako gazteak integratuz, Basque Circular HUBren bidez.



VII. Trakzio-konpromisoa	Proiektu adierazgarria
Giza duintasunaren errespetuan oinarritutako mundu baketsu bati laguntzea, bidezko bizikidetzara inklusibo baterako.	The Basque case proiektua: lessons learned for the prevention of violence and protection of peace proiektua (Indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko euskal kasuaren ikaskuntzak)

***-The Basque case proiektua: lessons learned for the prevention of violence and protection of peace.*** "Indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko euskal kasuaren ikaskuntzak" proiektu adierazgarria 16. GJHari egindako ekarpen gisa planteatzen da. Euskal kasutik indarkeria prebenitzearen eta bakea babestearen arloan atera daitezkeen ikaskuntzak eskaintzen dituen txosten bat egitea eta nazioartean zabaltzea da, beste gatazka- eta indarkeria-testuinguru batzuetan kontrastatu ahal izateko. Proiektua 2023an amaitu zen, eta 2024ko urtarrilean bidali zen Nazio Batuetara eta nazioarteko beste erakunde batzuetara.

## 4.2. Bultzatu 2050 Hiri Agenda

BULTZATU 2050 Euskadiko Hiri Agendaren garapenak bultzada nabarmena izan du 2023an, bi alderdi nagusitan:

Alde batetik, Euskadin hiria berroneratzeko Opengela eredia hedatzea eta eredia nazioartekotzea. Bizitegi-eraikinen birgaitze-prozesua –batez ere familia anitzekoena–, Euskadin eraikita dagoen parkearen gehiengoa dena, erronka konplexua da.

Konplexutasun horri aurre egiteko, Euskadik 2017an hiri-berroneratzeko Opengela eredia jarri zuen abian, auzo-bulegoen sare baten bidez. Bulego horiek bizilagunei laguntzen diete beren eraikinak zaharbertzen, eta, gai teknikoetan eta finantzarioetan aditua den aholkularitzaz gain, jarduera horiek dakarten prozesu luzean beharrezkoak diren hurbiltasuna eta konfiantza ematen dute. 2023an, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ezohiko programa batzuek helburu horretarako jarritako baliabideei esker, hedapen-prozesua 25 udalerriraino eta 3.200 familia baino gehiagoraino iritsi zen. Horren ondorioz, Next Generation EU Europako Funtsei lotutako Euskadi Next 21-26 Programan sartutako Ekonomia Berreskuratu eta Eraldatzeko Plan Estrategikoaren (PERTE) garapenean sakondu ahal izan da.

Gainera, Opengela Hiria Berroneratzeko Euskal Programaren arrakastaren ondorioz, Europako Batzordeak proiektu berri baterako finantzaketa eman du LIFE (BIRTUOSS Proiektua) programaren bidez. Programa horrek datozen hiru urteak hartuko ditu barne. Hiri-berroneratze prozesuari jarraipena emateko balioko du, eta orain indartu egingo da, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-alderdiak integratuz, eredia Euskadi osora hedatzeko beharrezko den kudeaketa-egitura ezartzeko helburu handinahiarekin, kalteberatasun-arriskuan dauden eremuetatik haratago.

Proiektu honek Euskadiko auzo guztietara zabal daitezkeen kudeaketa-eredu batean oinarritutako ikuspegiarekin jarraituko du, hurbileko bulegoen bidez, baina, aldi berean, ikuspegi sistemikoagoa emango da, formula berritzaileak abian jarritz, eraikinetan esku hartzeaz gain, auzoen eskalan beste jarduketak batzuk txerta daitezzen, hiri-berroneratzeko eragiketen xede diren hiri-inguruneetako bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin.

Bestalde, 2023an, Hiri Agenda Lantaldearen eztabaiden ondorioz –eragile anitzeko taldea eta maila anitzeko taldea, euskal erakunde guztien stakeholder-ak biltzen dituen, Industriaren, Unibertsitateen eta gizarte zibilaren ordezkariak, eta Eusko Jaurlaritzak 2030 Agenda eta GJHak lurraldean lokalizatzeko egiten dituen ahaleginen funtsezko pieza dena–, Hiri Agendaren bigarren jarraipen txostena onartu zen, eranskin gisa erantsi dena. Txosten honek Agendaren 8 Lehentasun Estrategikoetako biren azterketa sakona jasotzen du, zehazkiago, 2. lehentasun estratergikoari buruzkoa: mugikortasun jasangarri berri baterantz, hiri barnekoa, hiri artekoa eta multimodala; eta 4. lehentasun estratergikoa: hiri berritzaile eta jakintsuak (ikerketa, berrikuntza eta teknologia, konektibitatea, smart cities eta berrikuntza ez-teknologikoa bezalako alderdiak bilduz). Aurreikuspenen arabera, hurrengo urteetan urteko txosten honek bi lehentasun estratergiko jasoko ditu urtero, ikuspegi kualitatibotik zein kuantitatibotik eta kritika eraikitzaileerako bokaziotik.

### 4.3. GJHak EAEko udalerrietan lokalizatzea

2015ean Nazio Batuek 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak onartu izana erreferentzia-esparru berria izan zen EAEko udalerrietan garapen jasangarriaren printzipioak ezartzeko. Ordura arte, eta duela 20 urte baino gehiagotik, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek Aalborgeko Gutunari eta Agenda 21eko prozesuei atxikitzea onartu zuten, udalerrri eta hiri jasangarriagoetarantz aurrera egiteko tresna gisa.

Bide horretan zehar, Udalsarea 2030 –Udalerrri Jasangarrien Euskal Sarea eta EUDEL– Euskadiko Udalen Elkartearen liderrak dira modu koordinatuan GJHak Euskadiko tokiko eremuan lokalizatzeke.

Azken urteotan, eta Agenda 21etik 2030 Agendarako trantsizioaren testuinguruan, Udalsarea 2030 sarea hainbat tresna eta zerbitzu garatu ditu Garapen Jasangarrirako Helburuak EAEko udalerrien eta eskualde-erakundeen ezaugarrietara eta errealitatera egokitzeko, tokiko mailan inplementatzea errazte aldera. Nabarmentzekoa da 2015ean egindako gida: “Tokiko 2030 Agenda. Nola heldu Garapen Jasangarriaren Helburuei tokiko eremutik” eta Tokiko 2030 Agenda lantaldeak sortzea eta dinamizatzea.

Gainera, Udalsarea 2030 sareak garapen jasangarrirako tokiko planen eta politiken jarraipena eta ebaluazioa egiteko eredu bat bultzatu du, kontuak ematera bideratua, eta horrek aukera ematen die erakundeeri urtero borondatezko tokiko txostenak sortzeko. Gaur egun, 37 udalerririk dute txosten hori.

Osagarri gisa, EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearen beste jardueraren ildora batzuk bultzatzen ari da, hala nola udal-aurrekontua GJHekin lerrokatzea, “Udal-aurrekontua GJHekin lerrokatzeke Gida praktikoa” bidez.

2021ean, EAEko udalerriek 2030 Agendan duten parte-hartzearen esparruan, udal-sustapeneko 15 lankidetzaren proiektu hautatu ziren 2021-2024 aldirako, eta Euskadi 2030 Agendako proiektu gisa txertatu ziren. Proiektu horiek 2023an garatzen jarraitu da.

Nabarmentzekoa da, halaber, EAEko udalerriek Europako Kontseiluaren Gobernantzako Bikaintasun Zigiluan (ELOGE) duten parte-hartzea. Zigilu horrek tokiko gobernuaren kalitate gorena egiaztatzen du, 12 printzipio eta 97 adierazle oinarri hartuta, eta Europar gobernuaren eta udal-gobernu bateko berrikuntza demokratikoaren aintzatespen handiagoa adierazten du. ELOGEren printzipioetan eta adierazleetan aurrera egiteak 16. eta 17. GJHek proposatzen duten gobernantzaren kalitatea hobetzea dakar.

Azkenik, urrian, EUDELek “Udal aurrekontua Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatzen hasteko gida praktikoa” dokumentua aurkeztu zuen. Dokumentu horren bidez, GJHen lokalizazioa bizkortzeko esparru estrategiko bat proposatzen zen, eta lokalizazio horretan laguntzeko eskuragarri zeuden tresnak biltzen ziren.

EAEko udalerrietan GJHen lokalizazioaren konpromisoari dagokionez, alderdi azpimarragarrienetako bat da ia udalerrri guztiek partekatzen duten helburua dela, haien dimentsioa alde batera utzita. Adierazle garrantzitsuenen artean, honako hauek azpimarra ditzakegu:

- 202 udalerririk parte hartzen dute zuzenean edo eskualde-erakundeen bidez Udalsarea 2030 programan, hau da, EAEko udalerrien % 80,50 eta EAEko biztanleen % 94,35.
- EAEko 65 toki-erakundek (udalerririk eta eskualde-erakundeak) Tokiko 2030 Agendaren Plana dute edo prestatzen ari dira.
- Euskal hiriburuetakako hiru udalek trakzio-eginkizuna betetzen dute, eta horrek 2030 Agendarekiko konpromisoan pixkanaka eta gero eta gehiago sartzeko udal-sinergia sortzen du.


### 4.4. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua lerrokatzea

Aurrekontua funtsezko tresna da politika eta zerbitzu publikoak Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzera bideratzeko. Horregatik, Eusko Jaurlaritza 2023an hasi zen Aurrekontua 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatzeke txosten bat egiten.

Ibilbide horri jarraikiz, eta 2024ko aurrekontuari begira, guztira 106 aurrekontu-programa lerrokatu dira, 26 gastu-funtziotan sailkatuta, 2030 Agendaren 17 GJHetan eragina dutenak, eta 560 inpaktu identifikatu dira guztira, zuzenean aplikatzekoak (GJHko helbururen bat betetzera zuzenean bideratutako aurrekontu-programako baliabideak) eta zeharka aplikaziokoak (aurrekontu-programako baliabi-

deak zeharka GJHko helburuak betetzera bideratzen direnean). Lerrokatze horren emaitza orokorra grafiko honetan ikus daiteke:

### GJHei egindako aurrekontu ekarpena (milaka eurotan)



Erakundeen GJHez gain (16 eta 17), aurrekontuaren ahalegin gehiena pobrezia eta desberdintasunen aurka borrokatzeko helburuetan (1, 5 eta 10), hazkunde ekonomikan eta ongizatean (3, 8, 9 eta 11) eta modu atomizatuagoan eta zeharkakoagoan ingurumen-jasangarritasunarekin lotutako helburuetan (6, 7, 12, 13, 14 eta 15) oinarritzen da.

2. eranskinean, 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin 2024ko Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren lerrokatzeari buruzko txostenaren bertsio osoa jasotzen da.

## 4.5. Nazioarteko ekintzak

Nazioarteko proiektioari dagokionez, 2023an zehar, hainbat saretan parte hartzeaz gain (Regions4, CGLU edo Plataforma, foro aldeaniztunak eta alde biko bilerak), honako hauek dira Euskadin garatutako ekimen garrantzitsuenak:

**Local 2030** Idazkaritzaren egoitza. Bilbo Local 2030 Idazkaritzaren egoitza izendatu ondoren, 2023ko azaroaren 3an proiektuaren izapidetzea behin betiko amaitzen duen hitzarmena sinatu zen, eta Euskadin lehen mailako eta garrantzi handiko nazioarteko erakunde bat ezarri zen. Egoitza hori 2024ko lehen hilabeteetan jarriko da martxan.

**Nazio Batuen GJHen Goi-bilera.** 2023ko martxoaren 15ean, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakariak Now 2030 Proposamena aurkeztu zuen 2030 Agenda Euskadi Foroaren Osoko Bilkuran, baita Nazio Batuetara eta Europako erakunde nagusietara zuzentzeko asmoa ere. *Now 2030 Proposamenak* Nazio Batuek irailean New Yorken egin behar zuten GJHen Goi-bileraren formatua eta ondorioak zabaltzea proposatu zuen.

Dokumentuak proposatzen zuen ebaluazio zorrotza egitea, 2015etik 2023ra, eta GJHetarako premia- zko lehentasunak zehaztea, 2023tik 2030era. Horrekin batera, erakunde eta eragile sozialen Konpromiso Zehatzen Adierazpen baten alde egiten zuen, "2030 orain delako" luzamendurik ez dagoela onartuta.

Euskal ordezkari- tza batek Nazio Batuen GJHen Goi-bileran parte hartu zuen irailaren 16an eta 17an, Local 2030 Koalizioaren egoitzaren anfitrioi gisa. Esparru horretan aurkeztu zuen Euskadik eskaini zezakeena definitzen zuen euskal konpromisoaren eredia, bere gaitasunetatik eta ahalmenetatik abiatuta. Honako esku- hartze hauek nabarmentzen dira:

·Iñigo Urkullu Lehendakariak GJHen lokalizazioan eta gobernantzan eredu berri bat bultzatzeko Euskadik duen konpromisoa aurkeztea, gizarte osoaren parte- hartzearekin.

·Bilboko alkate Juan Mari Aburtok "Bilbao Balioen Hiria" ekimena aurkeztu zuen, gizarte gisa partekatutako balioak proiektu eraldatzaileei ekiteko giltzarriak direla adieraziz.

·Jonan Fernandez Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiak "Tokiko eta eskualdeko gobernuetarako GJHak instituzionalizatzeko eta sozializatzeko proposamena".


**Hirietan eta eskualdeetan GJHen eta Garapen globaleko agenden lokalizaziorako ELGaren programari atxikitzea.** 2030 Agenda sustatzeko eta ezartzeko politika publikoen ezarpena ebaluatzen duen programa bat da, eta, aldi berean, intereseko hainbat eskualderekin konparazio- prozesu bat egiten du, ELGaren eta eskualde horien batez bestekoarekiko duen posizioa neurtuz.

2023an, ELGaren lehen misio bat jaso zen, eta, bertan, 2030 Agenda ezartzearen inguruan hainbat eragilek eta erakunde- k egindako lana ebaluatu zen. 2024an, bigarren misio bat jasoko da programa amaitu aurretik. Programaren amaieran, laburpen- txosten bat dago, GJHen lurralde- ikuspegia hobetzeko esparru analitiko integrala barne hartzen duena.

**Zainketen aldeko aliantza globalean integratzea.** Euskadiren integrazioa nazioarteko komunitate honetan, NBE Emakumeak erakundeak bultzatua, zaintza- sistemak mundu osoan eraldatzea bilatzen duena, ordaindu gabeko zaintza- lana aintzatetsiz eta baloratuz eta sektoreko lan- baldintzak hobetuz.

**Nazioarteko eragileekin izandako beste harreman batzuk.** 2030 Agendaren lokalizazioari buruzko esperientziak eta ikaskuntzak partekatzeko nazioarteko eragileekin izandako bilera- agendaren barruan, Hawaii Green Growth-ekin (Hawaii-ko 2030 Agendaren lokalizazioari buruzko HUB-a) izandako alde- biko bilera nabarmendu behar da.





ERIK



3 OSASUNA  
ETA ONGIZATEA



4 KALITATEZKO  
HEZKUNTZA



5 GENERO  
BERDINTASUNA



6 UR GARBIA ETA  
SANEAMENDUA



7 ENERGIA IRISGARRIA  
ETA EZ KUTSAGARRIA



## Bigarren zatia

# Agenda garatzeko hedatutako eraldatze- ekintzak

Hurrengo orrialdeetan, euskal erakundeek GJHei zuzenean laguntzeko bultzatu dituzten ekintzak azalduko ditugu.

Ekintza horiek ia ezin konta ahalakoak direla kontuan harturik, erakunde-maila bakoitzetik (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak) egunero egiten den ekarpena adierazten duten zenbait ekintza hautatu dira GJH bakoitzerako. Ekintza horiek 3 kategoriatan sailkatu dira:

- Legegintzako ekimenak.
- Plangintza-tresnak, hala nola estrategiak eta planak.
- Zerbitzuak, programak eta proiektuak (\*).

Euskadin GJH bakoitzean erdietsitako inpaktua (izandako aurrerapena) erakusten duten zenbait adierazle —egiturazkoak batez ere— ere hautatu dira.

(\*). Kasu askotan zenbait erakunde-mailak elkarlanean garatu dituzten zerbitzuak, programak eta proiektuak dira.







# GJH 1

## Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan

### GJH 1 - Edukien laburpena

---

#### Legegintzako Ekimenak

- 14/2022 Legea, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena.
- 147/2023 Dekretua, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa.

#### Plangintza-Tresnak

- Gizarteratzeko V. Euskal Plana (2022-2026).
- EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa (2023-2026).
- Bizitegi-bazterketa larriaren aurkako Euskal Estrategia.
- Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala (2022-2036).
- Boluntariotzaren Euskal Estrategia (2021-2024).
- Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko IV. Plana.

## JARDUEREN BETETZEA

# GJH 1: Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan



---


### ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren programa** (Eusko Jaurlaritza). Oinarrizko beharrek lotutako gastuei aurre egiteko nahikoa baliabide ez duten bizikidetza-unitateetan integratutako pertsona eta familien oinarrizko beharrei erantzuteko hileko prestazio ekonomikoak.
- **Gizarte-larrialdietarako laguntzak** (Eusko Jaurlaritza eta udalak). Gizarte-bazterketa prebenitu, saihestu edo arintzeko behar diren gastu espezifikoak, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko nahikoa baliabide ez duen bizikidetza-unitate batean integratutako pertsonen zuzendutako prestazio ekonomiko ez-aldizkakoak.
- **Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria eta etxebizitza izateko eskubide subjektiboa** (Eusko Jaurlaritza). Etxebizitza eskuratzeko edo etxebizitza duina eta egokia eskueran jartzeko laguntza ekonomikoak, nahikoa baliabide ez duten bizikidetza-unitateei zuzendutakoak.
- **Energia- eta elikadura-pobrezia aurre egiteko Hitzartuz ekimena** (Eusko Jaurlaritza). Oinarrizko higie-ne-produktuak eta elikagaiak erosteko baliabiderik ez daukaten pertsonen eta familien oinarrizko beharrak premiaz estaltzea eta, halaber, sistematik kanpo geratzen diren familiei argindarraren, uraren eta gasaren fakturak ordaintzen laguntzea.
- **Energia-pobrezia aurrakako laguntza bereziak** (Bilboko Udala). Etxeko beharrak asetzeko behar adinako energia-zerbitzuen gastuak ordaindu ezin dituzten edo energiaren faktura ordaintzera diru-sarreraren zati proportzional gehiegizkoa bideratu behar duten familia-unitateei zuzendutako laguntza ekonomikoak.
- **“Gizarte Bonu Termikoa” programa** (Eusko Jaurlaritza). Kontsumitzaile zaurgarrienei berokuntza, ur beroa edo sukaldea erabiltzearen ondorioz eragindako gastu termikoak konpentsatzeko laguntza-programa.
- **Haur Pobrezia aurrakako Borrokarako goi-komisarioaren Haur Pobrezia Zero Herrialde Aliantzarekiko** atxikimendua (Gasteizko Udala). Aliantzaren helburua da haur-pobrezia joko aldaraztea, eta, horretarako, arazo hori desagerrarazteko funtsezko eragile artean akordioak sortzea.

- **Migraziorako Euskal Itun Soziala** (erakundeen artekoa). Immigrazioaren arloan jarrera etikoak defendatzeko bizikidetzaren aldeko konpromiso erkidea.
- **Bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen zenbaketa eta diagnostikoa** (Eusko Jaurlaritza eta udalak). Bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen kopurua gau jakin bat erreferentziatzat hartuta kuantifikatzea xede duen ekimena. Horrez gain, pertsona horien egoera eta ezaugarriak ezagutu eta analizatu nahi ditu.

## ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

<b>GJH1 Adierazleak</b>	<b>Oinarri- datua</b>	<b>Azken datua eta tendentzia</b>
Pobreziako edo gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonen proportzioa: AROPE adierazlea, pobreziaren atalase autonomikoa kontuan hartuta (%)	<b>22,68</b>	<b>19,47</b> 
Gutzizko gastu publikotik gizarte babesera bideratzen den proportzioa (%)	<b>45,50</b>	<b>46,42</b> 





# GJH 2

**Gosea amaitzea, elikagai-  
segurtasuna eta elikadura hobea  
lortzea, eta nekazaritza jasangarria  
bultzatzea**

## **GJH 2- Edukien laburpena**

---

### **Legegintzako Ekimenak**

- Agritech estrategia.
- EAEko Ekoizpen Ekologikoa Sustatzeko Plana (FOPE) (2020-2023).
- Gastronomía eta Elikaduraren Plan Estrategikoa.

## JARDUEREN BETETZEA



# GJH 2: Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea


---

### ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Jantoki sozialak** (Bilboko Udala). Elikadura baliabiderik gabeko pertsonen oinarritzko beharrietako bat da eta Bilboko Udalak "Etxerik gabeko pertsonentzako esku-hartze sozialeko Oinarritzko Programaren" bidez erantzuten dio, 3 jantoki sozialen bitartez.
- **Nekazaritza-lurzoruaren osasunaren adierazleak zaindu eta iragarriko dituen azpiegitura digitala sortzeko AI4SoilHealth Europako proiektuan parte hartzea** (Eusko Jaurларitza).
- **Nekazaritza Politika Erkidearen barruko esku-hartzeen programa, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funttsaren (NBEUF) kargura finantzatutako zuzeneko ordainkete-na** (Eusko Jaurларitza).
- **GaztenekBerri programa** (Eusko Jaurларitza eta foru-aldundiak). Lehen sektoreko belau-naldien arteko erreleboaren inguruko programa, ustiategien jasangarritasuna nabarmen-tzen duena.
- **Labore ekologikoen finka esperimentala Eskalmendin** (Arabako Foru Aldundia).
- **Basaldea zentroa, nekazaritza birsortzailearen inguruko prestakuntza eta ekintzai-letza** (Gasteizko Udala).

## ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

GJH 2 Adierazleak	Oinarri- datua	Azken datua eta tendentzia
Nekazaritza emankor eta jasangarria lantzen duten laborantza-lurren azaleraren proportzioa (%)	1,09	2,91 
Elikagaien prezioen indizearen urte arteko aldakuntza-tasa (%)	1,40	11,10 







# GJH 3

## Guztionzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea

### GJH 3 - Edukien laburpena

---

#### Legegintzako Ekimenak

- 13/2023 Legea, Euskadiko Osasun Publikoarena.

#### Plangintza-Tresnak

- Euskadiko Osasun Plana (2030).
- Euskadiko Arreta Soziosanitariorako Estrategia (2021-2024).
- Euskadiko Onkologia Plana (2018-2023).
- GIBaren infekzioa eta sexu-transmisiozko beste infekzio batzuk prebenitzeko eta kontrolatzeko Plan Estrategikoa (2022-2030).
- Euskadiko Osasun Mentaleko Estrategia (2023-2028).
- Euskadiko Adikzioen VIII. Plana (2023-2027).
- EAEn jarduera fisikoa preskribatzeko plana.
- Euskadiko Zainketa Aringarrien Plan Estrategikoa (2023-2027).
- Euskadin Haurren Obesitatea Prebenitzeko Estrategia ("Sano").

## JARDUEREN BETETZEA

# GJH 3: Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea



---


### ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Osasun-instalazioak eta -ekipamenduak modernizatzea eta egokitzea** (Eusko Jaurlaritza).
- **0 eta 6 urte bitarteko haurrak aho-hortzen osasuneko zerbitzuen zorro berrian sartzea** (Eusko Jaurlaritza).
- **Umeen txertaketa-egutegi berria** (Eusko Jaurlaritza). 2023an B meningokokoaren aurkako txertoa, gripearena eta papilomarena sartu dira.
- **Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua sortzea** (erakundeen artekoa). Kontseiluak erakundeen arteko koordinazio soziosanitario efektiboa sustatzeko eta ahalbidetzeko esparruetan lan egiten du, lehen mailako eta bigarren mailako arretan, diziplinarteko lan-esparru partekatua sustatzeko eta pertsonen behar soziosanitarioei erantzuteko.
- **Udaletako osasun-planak** (udalak).
- **“Healthier together” osasun mentala hobetzeko Europako ekimenean parte hartzea** (Eusko Jaurlaritza).
- **Adinberri** (Gipuzkoako Foru Aldundia). Aurrea hartzeko gobernantza-proiektu integrala, biztanleriaren zahartzearekin lotutako erronkak identifikatzen eta aukeratzat hartuta erantzuten lan egiten duena.
- **EtxeTIC proiektua, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak etxean bizitzen jarraitzeko laguntza-zerbitzua** (Bizkaiko Foru Aldundia). Etxean ematen diren zainketei laguntzeko doako zerbitzua. Aurrez aurreko laguntza eskaintzen du (EtxeTIC eskualde-zentroetan bertan), baita telematikoa ere (etxetik, gailu teknologikoen bidez).
- **Euskadi Lagunkoia, adinekoekin lagunkoia diren udalerrriak** (Eusko Jaurlaritza eta udalak). Ekimenaren helburua da adinekoek Euskadiko udalerrietan parte har dezaten sustatzea eta adinekoekin lagunkoia diren hiri eta herriak osatzea.

- **Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoak** (Eusko Jaurlaritza). Euskadiko ikasleen artean kirol-ohiturak sustatzeko urteko ekitaldia.
- **Mugiment** (Eusko Jaurlaritza eta udalak). Euskal gizarte aktiboa lortzeko elkarlaneko proiektua. Jarduera fisikoa sustatzera eta sedentarismoa murriztera bideratutako ekimenak baten ditu, pertsona ez-aktiboak aktibo bihurtzeko neurriei lehentasuna emanez.
- **Zeu Ere Kirolari** (Bizkaiko Foru Aldundia). Proiektuaren asmoa da Bizkaiko biztanleen artean kirola egiteko aukerak areagotzea 3 esparrutan: naturaguneak erabiltzea kirola egiteko; emakumea eta kirola; eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen kirola egiteko aukerak areagotzea.

## ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

GJH 3 Adierazleak	Oinarri-datua	Azken datua eta tendentzia
Bizi-itzaropena jaiotzean (urteak)	82,97	83,36 
Obesitate-tasa helduen artean (%)	13,00	13,51 





# GJH 4

**Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea**

## **GJH 4 - Edukien laburpena**

---

### **Legegintzako Ekimenak**

- 17/2023 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena.

### **Plangintza-Tresnak**

- Lanbide Heziketako VI. Euskal Plana.
- Unibertsitate Sistemaren Plana (2023-2026).
- Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Plana (2022-2024).
- STEAM Euskadi estrategia.
- Astialdi Hezigarria Sustatzeko 2030 Euskal Estrategia.

## JARDUEREN BETETZEA

# GJH 4: Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea




---


### ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **“Hezkuntzaren auzolana. Una educación para todos y todas” proiektua** (Eusko Jaurlaritza). Hezkuntza-etapa guztietan ekimenak dituen eta kolektibo zaurgarrienei arreta berezia ematen dien zeharkako proiektu gisa konfiguratzeko da.
- **Desabantaila sozialeko egoeran dauden haurren, nerabeen eta horien familien gaitasunak indartzeko eta arrakala digitala murrizteko Aukerak Suspertzen programa** (Eusko Jaurlaritza).
- **Donostia Munduen Artean** (Donostiako Udala). Eraldaketa sozialerako hezkuntza, “Ihesa zilegi balitz” (mugei eta migrazio-fluxuei buruzko erakusketa, eskolekin bisita gidatuak eta pedagogikoak egiten dituen) eta “Inor ez dago urrun” (kale-antzerkia, aporofobiaren inguruan sentsibilizatze) bezalako jarduketak biltzen dituen.
- **Unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenen programa** (Eusko Jaurlaritza).
- **Unibertsitateko ikasketak eta goi-mailako beste ikasketa batzuk egiteko beken programa** (Eusko Jaurlaritza).
- **Ikaslab, ikasteko metodologiak berritzeko proiektua** (Eusko Jaurlaritza).
- **Euskadiko Lanbide Heziketan espazio, ekipamendu eta azpiegituren eraldaketa digitala eta jasangarria gauzatzeko “Ikastetxe Adimendunak 5.0”** (Eusko Jaurlaritza).

- **Lanbide Heziketako Talentuaren Euskal Institutua (iTlent) sortzea** (Eusko Jaurlaritza). Ikaskuntza-eredu metodologiko aurreratuen ikerketa aplikatua, garapena, inplementazioa eta transferentzia bultzatzeko eginkizuna duen erakunde teknikoa, lanbide-heziketako ikasleek talentua gara dezaten; izan ere, talentu hori eskatutako enplegarritasun-betekizunetara egokitzen laguntzen duten konpetentzia profesional eta pertsonaletan adierazten da.
- **Gizartearekin lankidetzaharremanak estutzeko eta ezagutza transferitzeko "Unibertsitatea-Enpresa-Gizarte" ikasgelak** (Eusko Jaurlaritza).
- **Enpresek 4.0 Industriaren esparruan eskatzen duten etengabeko prestakuntzari Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek erantzun koordinatua eskaintzeko 4GUNE egikaritze-programa** (unibertsitateak).
- **STEAM Sare lanbide-orientazioko topaketak** (Eusko Jaurlaritza). Ekimena STEAM estrategiaren barruan kokatzen da. Estrategia horren bidez, STEM irakaskuntzak (zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika integratzen dituen hezkuntza) Euskadiko ikasle guztiei hurbildu nahi zaizkie, baina, bereziki, neskei, esparru profesional horretan genero-arrakala murrizteko asmoz.
- **Bilbo, Unibertsitate Hiria** (Bilboko Udala). Bilbo nazioarteko talentu gaztearentzako ezagutza-hub baten modura posizionatzeko hiri-estrategia. Bertan, unibertsitateek, ikastetxeek eta ikerketa-zentroek ekosistema irekia eta dinamikoa sortuko dute, enpresa-ehunarekin eta ekintzailetzarekin harreman estuan.
- **Ikasmina, Ikaskuntzaren Lurraldea** (Gipuzkoako Foru Aldundia). Gipuzkoa Ikaskuntzaren Lurralde bilakatzeko ekimena. Eragile guztiek lankidetzan jarduten duten lurraldea, ikaskuntza-behar espezifikoak erantzuteko eta arazo erkideei irtenbide bateratuak emateko. Ikasteko kultura sustatzen duen lurraldea, pertsonak eta erakundeak ikaskuntzan parte hartzera bultzatu eta sustatzen dituena.

## ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

<b>GJH 4 Adierazleak</b>	<b>Oinarri-datua</b>	<b>Azken datua eta tendentzia</b>	
Hirugarren mailako ikasketak amaitu dituzten 30-34 urteko pertsonen proportzioa (%)	<b>50,34</b>	<b>48,78</b>	
18-24 urte bitarteko biztanleen eskola-uzte goiztiarraren tasa (%)	<b>10,2</b>	<b>8,8</b>	
Matematikako gaitasunaren 2. maila gutxienez lortu duten 15 urteko pertsonen proportzioa (%)	<b>82,6</b> <b>80,5</b>	<b>74,2</b> <b>77,3</b>	







# GJH 5

## Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahalduntzea

### GJH 5 - Edukien laburpena

---

#### Legegintzako Ekimenak

- 1/2022 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko.

#### Plangintza-Tresnak

- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plan Estrategikoa.
- EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko III. Akordioa.
- Soldata-arrakalaren aurkako talka-plana.

## JARDUEREN BETETZEA

# GJH 5 - Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahalduntzea




---

### ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **BAI Sarea - Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko erakunde laguntzaileen sarea** (Eusko Jaurlaritza). Sare horren asmoa da enpresa- eta gizarte-errealitatea eraldatzeko neurri eta tresnen garapenean eta ekimen partekatuetan laguntzea eta arlo horretan partekatzea, lan-esparruko genero-arrakalak murrizteko eta berdintasuna eta justizia soziala erakundeen balio estrategikoak izan daitezen bultzatzeko.
- **Berdintasunaren aldeko Tokiko Gizonezko Hautetsien Sarea** (Berdinsarea). Sare horren asmoa da tokiko politikariek beren udalerrietan berdintasunak aurrera egitearekin duten inplikazioan modu esanguratsuan sakontzea.
- **Ikuspegi feminista duen zainketa erantzunkideen tokiko eredia** (Berdinsarea). Proiektu horrek identifikatu, definitu eta modelatu nahi du nola eraiki daitekeen zainketen tokiko sare bat bizitzaren zentralitatearen paradigmatik, zerbitzu publikoetatik eta sare komunitarioetatik, zainketa-sisteman inplikaturik dauden eragileekin behar diren aliantzak sortuta.
- **Basqueskola sarea indartzea emakumeek tokiko politikan parte hartu eta eragina izan dezaten** (Berdinsarea).
- **Indarkeria matxistaren biktimen diren emakumeentzako arreta hobetzeko erakunde artekoko akordioa** (erakunde artekoa). Akordio horren xedea da tratatu txarren eta sexu-erasoen biktimentzako arretan inplikaturik dauden erakundeak koordinatzea, babes integral sanitarioa, poliziala, judiziala eta soziala bermatzeko.
- **Indarkeria matxistaren biktimen arreta integralerako eta erreparaziorako tokiko koordinazio-protokoloak eguneratzea** (Berdinsarea).
- **Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko "Beldur Barik" erakunde artekoko kanpaina** (erakunde artekoa).

- **Eraso Stop app-a** (Bilboko Udala). Erasoa prebenitzea xede duen doako aplikazioa, Udaltzaingoaren koordinazio-zentrora berehala abisatzeko aukera ematen baitu, dei bat egin beharrik gabe.
- **Ahalduntzeko eskolak** (aldundiak eta udalak). Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa ahalduntze-prozesuen bitartez sustatzea helburu duten espazioak.
- **HARA! Berdintasun-politikan sexu- eta genero-aniztasuna txertatzeko agenda** (Gasteizko Udala).

## ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

<b>GJH 5 Adierazleak</b>	<b>Oinarri-datua</b>	<b>Azken datua eta tendentzia</b>	
Emakumeen kontrako biktimizazio-tasa (10.000ko hainbeste)	<b>47,27</b>	<b>54,43</b>	
Alkatetzetako emakumeen proportzioa (%)	<b>25,20</b>	<b>30,07</b>	
Goi-zuzendaritzako emakumeen proportzioa (%)	<b>29,45</b>	<b>27,66</b>	





# GJH 6

**Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea**

## **GJH 6 - Edukien laburpena**

---

### **Plangintza-Tresnak**

- Euskadiko Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (UAKP).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Alerta-egoeretan eta balizko lehorteetan jarduteko plan berezia.

## JARDUEREN BETETZEA



# GJH 6: Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea


---

### ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Hornidura- eta saneamendu-arloko jarduketak** (Eusko Jaurlaritza eta udalak).
- **Uholdeen aurkako babesaren arloko jarduketak** (Eusko Jaurlaritza eta udalak). Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean ezarritakotik abiatuta, lehentasunezko obrak udalerriekin lankidetzan garatzea.
- **Uraren Euskal Agentziaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren arteko lankidetzaren hitzarmena, kontsumo publikoko uren kalitatea eta bainu-eremuetako uren kalitatea babesteko** (Eusko Jaurlaritza).
- **Edateko ura banatzeko efizientzia handiko sistema** (Gasteizko Udala). Hornidura-sarearen % 100 GIS baten bidez kontrolatzea, eroanbideak sistematikoki berritzea, harguneak modu optimoan egikaritzea, ihesak sistematikoki bilatzea eta kontagailu-parkea berritzea... sarearen % 90etik gorako errendimenduak lortzeko.
- **Hemen Urumea** (Donostiako Udala). Saneamenduak hiriko ur-masen kalitaterako duen garrantziaren inguruan kontzientziatzeko kanpaina, bai Urumea ibaian bai erreka nagusietan.

## ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

<b>GJH 6 Adierazleak</b>	<b>Oinarri- datua</b>	<b>Azken datua eta tendentzia</b>
Lurrazaleko ur-masen kalitatea (%)	<b>48,1</b>	<b>50,3</b> 
Ur eskaria biztanleko eta eguneko (litroak)	<b>179,28</b>	<b>177,60</b> 







# GJH 7

**Energia eskuragarria,  
fidagarria, jasagarria  
eta modernoa bermatzea  
guztiontzat**

## **GJH 7 - Edukien laburpena**

---

### **Legegintzako Ekimenak**

- Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Lege-proiektua.
- Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala.

### **Plangintza-Tresnak**

- Euskadiko Energia Estrategia (2030).
  - Euskadiko Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana.
  - Sektore publikoaren energia-arloko jarduketa-plana (2030).
- Hidrogenoaren Euskal Estrategia.

## JARDUEREN BETETZEA



# GJH 7: Energia eskuragarria, fidagarria, jasagarria eta modernoa bermatzea guztiontzat


---

### ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Energia-Ekiola** (Eusko Jaurlaritza eta Mondragon Taldea). Herritarrek berek eguzki-parke txikien bitartez autokontsumorako izango den eguzki-energiaren sorkuntzan eta kudeaketan parte hartuko duten kooperatibak bultzatzea.
- **Kontzejuetan energia-komunitate termikoak sustatzea** (Gasteizko Udala).
- **Itsas energia berriztagarrien teknologia berriak erakusteko eta balioztatzeko inbertsioetarako laguntzak** (Eusko Jaurlaritza).
- **Energia berriztagarriak inplementatzeko bideragarritasun-azterketetarako eta energia-efizientziako inbertsioetarako laguntzak** (Eusko Jaurlaritza).
- **Industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETE-etan energia-auditoria integralak egiteko laguntzak** (Eusko Jaurlaritza).
- **Energia-trantsizio justua sustatzeko eskualde-planak** (Gipuzkoako Foru Aldundia, toki-erakundeak eta eskualde-erakundeak). Eskualdeetan eta udalerrietan eredu energetikoaren aldaketa bultzatzea, energia-trantsizio justua sustatu, energia-pobreziari aurre egin, energia-efizientzia hobetu eta energia berriztagarrien erabilera aurrera egingo duten eskualde-planen bitartez.
- **Energy Intelligence Center (EIC)** (Bizkaiko Foru Aldundia). Bizkaia eta Euskadi energiaren eta trantsizio energetikoaren alorrean nazioarteko erreferentzia gisa posizionatzera zuzendutako proiektua, sektorearen lehiakortasuna —euskal industriaren funtsezko zutabea— eta gure enpresen presentzia globala finkatzen lagunduko duena.

## ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

<b>GJH 7 Adierazleak</b>	<b>Oinarri- datua</b>	<b>Azken datua eta tendentzia</b>
Energia-intentsitatea (Tep/milioi €)	<b>91,90</b>	<b>86,19</b> 
Biztanleko instalatutako eguzki-potentzia (kW), eolikoa (kW), hidraulikoa (kW), fotovoltaikoa (m <sup>2</sup> )	<b>99,36</b>	<b>202,90</b>
	<b>727,50</b>	<b>697,51</b> 
	<b>797,03</b>	<b>786,71</b>
	<b>109,18</b>	<b>377,06</b>





# GJH 8

**Guztiontzako hazkunde  
ekonomiko jarraitua,  
inklusiboa eta jasangarria,  
osoko enplegu produktiboa  
eta lan duina sustatzea**

## **GJH 8 - Edukien laburpena**

---

### **Legegintzako Ekimenak**

- 15/2023 Legea, Enpleguarena.

### **Plangintza-Tresnak**

- Enpleguaren Euskal Estrategia (2030).
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia (2021-2025).
- Berpiztu, Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Programa (2020-2024).
- EEP Ekintzailtzaren Erakundearteko Plana (2024).
- Lanbide Hobetzen plana.
- Merkataritza 2030 estrategia.

## JARDUEREN BETETZEA

# GJH 8: Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, osoko enplegu produktiboa eta lan duina sustatzea



---


### ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Enplegagarritasuna hobetzeko ibilbide integralak** (Garapen). Gizarteratzera eta laneratzera bideratutako ibilbide integralen diseinuaren bitartez behar horiei aurre egin nahi dien proiektua.
- **Tokiko eta eskualdeko enplegu-planetarako laguntzak** (Eusko Jaurlaritza). Tokiko beharrei erantzun dieten enplegua sortzeko proiektuak abian jartzeko laguntza ekonomikoen bitartez tokiko esparruan enplegua eta enpresa-jarduera sortzeko ekimenak.
- **Elkar-EKIN Lanean** (Gipuzkoako Foru Aldundia). Enplegua, gizarteratzea eta laneratzea sustatzea, laneratzeko ibilbide integratuak jorratuko dituzten programen, enpleguko eta prestakuntzako programen eta lurraldean laneratzeko enpresak sortzea eta mantentzea bultzatzearen bitartez.
- **Langabeen gaitasun digitalak hobetzeko prestakuntza finantzatzera bideratutako laguntzak** (Eusko Jaurlaritza).
- **Euskal enpresetan langabe gazteak kontratatzeko Lehen Aukera programa** (Eusko Jaurlaritza).
- **Atzerrian enpresa-praktikak egiteko Global Training bekak** (Eusko Jaurlaritza). Gazteen nazioarteko prestakuntza eta mugikortasuna ahalbidetzeko programa. Horretarako, beren profil akademikoarekin erlazionatutako jarduerak eta proiektuak egingo dituzte, atzerrian lanbide-esperientzia irabazteko eta beren lanbide-jarduera betetzeko balio handiko ezagutzak, kontaktuak eta tresnak eskuratzeko.
- **Zaindu/InguruarEKIN, ekintzailatza jasangarriaren sustapena** (Garapen). Jasangarritasunaren ikuspegitik proiektu eraldatzaileen garapena sustatu nahi duen programa, garapen sozialari, ekonomikoari eta ingurumen-garapenari dagokienez, eskualde bakoitzaren indarrekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatuta.
- **Ekonomia sozialean ekintzaile izateko laguntzak** (Eusko Jaurlaritza).
- **Zorrotzaurreko Hiri Parke Teknologikoa** (erakundeen artekoa). Hiri-parke teknologiko bat garatzea, 133.000 metro koadroko azalerakoa, adimen artifiziala eta Big Data bezalako teknologia berrien erabilera intentsiboan espezializatutako enpresak, enpresa-zerbitzu eza-gutzan intentsiboak eta industriarako zerbitzu aurreratuak ezartzera bideratua.

- **Talent Houses (Talentuaren Etxeak)** (Donostiako Udala). Nazioarteko talentua hirira erakartzeko estrategia garatzen laguntzeko espazioak, integrazio-zerbitzua, aldi baterako ostatua eta I+G+Bri lotutako sareko lanerako topaguneak eskainiz, nazioarteko ekintzaileentzat, kualifikazio-maila handiko profesionalentzat eta ikertzaileentzat.
- **Bono Denda programa** (erakundeen artekoa). Hurbileko txikizkako saltokietan kontsumoa sustatzeko programa.
- **Euskadiko Inbertsio Estrategikoen Plana (2022-2024)** (Eusko Jaurlaritza eta aldundiak). Programa honek 529 milioi euroko inbertsioa egiten du izaera eraldatzailea, espezializazio adimendunaren estrategiarekiko lerrokadura eta erakundeen arteko lankidetzeta eta lankidetzeta publiko-pribatua bereizgarri dituzten proiektuetan.

## ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

<b>GJH 8 Adierazleak</b>	<b>Oinarri-datua</b>	<b>Azken datua eta tendentzia</b>
Langabezia-tasa (%)	15,7	8,5 
Biztanleko BPG errealaren urteko hazkunde-tasa (%)	3,0	5,3 







# GJH 9

**Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea**

## **GJH 9 - Edukien laburpena**

---

### **Plangintza-Tresnak**

- Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (2030).
- Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko Plan Estrategikoa.
- Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategia (2025).
- Ekonomia Zirkularren eta Bioekonomiaren Plan Estrategikoa.

## JARDUEREN BETETZEA

# GJH 9: Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea



---


## ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK


- **Abiadura Handiko Trena eta Euskal Y-a** (Eusko Jaurlaritza). EAEko hiriburuak prestazio handiko linea baten bidez elkarrekin eta Irunen barna Frantziako mugarekin lotuko dituen trenbide-trazadura garatzea, Madriletikoko abiadura handiko lineari jarraipena emateko. Azpiegitura eta Garraio Plan Estrategikoaren prestazio handiko sarearen eta Europa Barneko Abiadura Handiko Trenbide Sareko Korridore Atlantikoaren parte izango da.
- **Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea amaitzea** (Bizkaiko Foru Aldundia).
- **Ikerbasque programa** (Eusko Jaurlaritza). Mundu osoko ikertzaileak erakarri, berreskurtu eta atxikitzearen bidez ikerketa zientifikoa garatzen laguntzeko programa.
- **Trantsizio Digitalerako Bulegoen Sarea** (Garapen).
- **Bilboko Agenda Digitala** (Bilboko Udala).
- **Hibridalab, berrikuntza irekiko zentroa** (Arabako Foru Aldundia). Berrikuntzaren bila esparru, diziplina eta jakintzen arteko gurutzatzea eta hibridazioa bultzatzeko espazioa.
- **Ekintzailetzaren Nazioarteko Zentroa** (Bizkaiko Foru Aldundia). Talentu ekintzailea eta berrikuntza irekia kontzentratzeko eta bultzatzeko huba, startupen, enpresen, inbertitzaileen eta administrazioaren arteko lankidetzan oinarritua.
- **Intelligence Center-en Sarea** (Bizkaiko Foru Aldundia). Bizkaiko enpresek mugikortasun jasangarria, manufaktura aurreratua, energia edo zahartzea bezalako esparruetan esku ardean dituzten erroka estrategikoetan laguntzeko bikaintasun-zentro sektorialen sarea.
- **Govtech Bizkaia** (Bizkaiko Foru Aldundia). Berrikuntza irekiko ekimen horren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiak erakunde hornitzaile ez-tradizionalen soluzio berriak identifikatu, gidatu eta eskalatzen ditu, hala nola startup, scaleup eta ETE digitalenak, esparru teknologikoko eragile berritzaileenekiko lankidetzeta publiko-pribaturako espazio berriak garatzen laguntzeko.
- **ADI Data Center** (maila anitzekoa eta eragile anitzekoa). Enpresa eta erakundeen eraldaketa digitalean laguntzeko goi-mailako datu-zentroa.

- **Elkartek, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntza-programa** (Eusko Jaurlaritza).
- **Cyberzaintza - Zibersegurtasunaren Euskal Agentzia sortzea** (Eusko Jaurlaritza). Euskadin Internet eta teknologia berriak erabiltzearen ondorio diren mehatxuei modu integralean eta zeharka aurre egiteko sortutako erakunde publikoa.
- **Hazitek, enpresetan I+G bultzatzeko programa** (Eusko Jaurlaritza). Euskal enpresen industria-ikerketan eta garapen esperimentalean laguntzea.
- **IBMrekiko aliantza konputazio kuantikoaren alorrean** (Eusko Jaurlaritza).
- **Donostia International Physics Centerren (DIPC) egoitza handitzea, bikaintasuneko ikerketa indartzeko** (Eusko Jaurlaritza).

## ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

<b>GJH 9 Adierazleak</b>	<b>Oinarri-datua</b>	<b>Azken datua eta tendentzia</b>
Ikerketa eta garapeneko gastuak BPGarekiko proportzioan (%)	<b>1,86</b>	<b>2,08</b> 
Goi-ertaineko eta goi-teknologiako jardueri dagokien manufaktura-sektorearen balio erantsi osoaren proportzioa (%)	<b>32,2</b>	<b>32,4</b> 





# GJH 10

## Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea

### GJH 10 - Edukien laburpena

---

#### Legegintzako Ekimenak

- 2/2022 Legea, Gazteriarena.
- Haur eta Nerabeen Legearen proiektua.
- Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren Legearen proiektua.

#### Plangintza-Tresnak

- Gazteen emantzipazioa ahalbidetzeko 2030 Euskal Estrategia eta V. Gazte Plana (2022-2026).
- EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa.
- Adinekoekiko Euskal Estrategia (2021-2024).
- Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Euskal Estrategia.

## JARDUEREN BETETZEA

# GJH 10: Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea



---


## ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Emantzipa programa** (Eusko Jaurlaritza). 25 eta 29 urte bitarteko gazteen emantzipaziora bideratutako zuzeneko laguntza.
- **GAZ, gazteekin emantzipazio-prozesuetan elkarlanean jarduteko laguntza-zerbitzua** (Eusko Jaurlaritza).
- **Gaztelagun programa** (Eusko Jaurlaritza). Gazteei zuzendutako etxebizitza alokatzeko laguntzak.
- **Trapezistak, Euskadin laguntzarik ez duten migratzaile gazteak gizarteratzeko eta helduarora igartzeko prozesuak bultzatzeko programa** (Eusko Jaurlaritza).
- **Enplegu Zentro Berezietan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko laguntzak** (Eusko Jaurlaritza).
- **Ohiko lan-merkatuan desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko laguntzak** (Eusko Jaurlaritza).
- **Begirada Aktiboa** (Bilboko Udala). Bilbon bakarrik bizi diren adinekoen parte-hartze eta interakzio soziala sustatzeko proiektua.
- **Belaunaldien arteko KUVU proiektua, nahi ez den bakardadeari aurre egiteko, adinekoen eta gazteen arteko bizikidetza bultzatuz** (Eusko Jaurlaritza).
- **Seme-alaben hazkuntzarako laguntzak** (Eusko Jaurlaritza). Jaiotzaren, adopzioaren, adopzio aurreko bizikidetzarako zaintza-delegazioaren edo tutoretzaren ondorioz ardurapean duen 0 eta 3 urte bitarteko seme edo alaba bakoitzeko hileko laguntza. 3-7 urteko seme edo alabei heda dakieke, hirugarren edo ondorengo seme edo alabaren kasuan.
- **Bherria proiektua** (Eusko Jaurlaritza). Administrazio publikoan erantzukizun politikoa eta teknikoa duten pertsonen zuzendutako programa, administrazio publikoaren eta herritar aktiboaren arteko lankidetzaren publiko-sozialaren modu berriak arakatu eta sustatzeko.
- **HaurEkin sarea** (Eusko Jaurlaritza). Haurrek eta nerabeek tokiko agendan eta politikan parte hartzea bultzatzen duen sarea.
- **Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen inklusio soziolaboralerako ibilbideak** (Eusko Jaurlaritza eta udalak).

- **Svisual, herritarrentzako arreta-postuetan eta Udaltzaingoan zeinu-hizkuntza bideoz interpretatzeko zerbitzua** (Gasteizko Udala).
- **Herri Txiki Aukera Handi** (Bizkaiko Foru Aldundia). Lurraldeko udalerrri guztiek zerbitzu publiko berak —bai gizarte-zerbitzuak bai mugikortasunari, aisiari, kulturari edo kirolari eta Internet sarbideari lotutako zerbitzuak— irispidean izan ditzaten bultzatzeko ekimena.
- **Ongi Etorri Eskolara** (Donostiako Udala). Eskoletan kulturarteko bizikidetzeta sustatzeko programa.
- **Aholku Sarea, Atzerritartasunaren arloko Arreta Juridikorako Euskal Sarea** (Eusko Jaurlaritzak). Zaurgarritasun egoeran dauden immigranteei eta immigranteekin inklusio-prozesuetan lan egiten duten administrazio publikoetako eta hirugarren sektoreko erakundee-tako profesionalei atzerritartasunaren arloko aholkularitza juridikoa ematea helburu duen sarea. Hori guztia immigranteen erregularizazioa errazteko eta gerora sortutako irregulartasuna prebenitzeko asmoz, une oro familiako bizitzaren alde egiten saiatuz.

## ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

<b>GJH 10 Adierazleak</b>	<b>Oinarri-datua</b>	<b>Azken datua eta tendentzia</b>
20/80 ratioa, familia-errenta erabilgarriaren desberdintasunarena (%)	<b>8,9</b>	<b>9,5</b> 
Gini indizea (indizea)	<b>27,10</b>	<b>26,88</b> 







# GJH 11

## Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea

### GJH 11 - Edukien laburpena

---

#### Legegintzako Ekimenak

- 80/2022 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituena.
- 11/2023 Legea, Euskadiko mugikortasun jasangarriarena.

#### Plangintza-Tresnak

- Etxebizitzaren Gida Plana (2021-2023).
- Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia.
- Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Plana (2030).
- Kultura Plan Estrategikoa (2028).
- Euskararen Agenda Estrategikoa.

## JARDUEREN BETETZEA

# GJH 11: Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea




---


### ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Opengela** (Eusko Jaurlaritza eta udalak). Euskadin hiri-berroneratzea hedatzea xede duen proiektua. Horretarako, auzokideei arreta emateko leihatila bakarraren modura jardungo duten auzo-bulegoak sortzea sustatuko du.
- **Etxebizitzak birgaitzen laguntzeko programa** (Eusko Jaurlaritza).
- **Eraikinak eta etxebizitzak energia-arloan birgaitzeko laguntzen programa** (Eusko Jaurlaritza).
- **MUBIL, Mugikortasun Adimendun eta Jasangarriaren Poloa** (Gipuzkoako Foru Aldundia). Euskadin mugikortasun adimendun eta jasangarriaren arloko ekimenak bultzatzen dituzten eragile publiko eta pribatuen ahaleginak biltzen dituen ekimena, Gipuzkoa eta Euskadi mugikortasun adimendun eta jasangarriaren esparruan garrantzizko eragileak izatera irits daitezzen.
- **Hiri barruko eta hiriarteko bidegorriak** (foru-aldundiak eta udalak). Bizikletaren jolas-erabilera eta egunerokoa eta oinezkoen joan-etorriak soluzio partekatuen zein bereziki bereziki sustatzeko bizikleta-bideak.
- **Metro Bilbao hedatzea** (Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia).
- **Gasteizko tranbia hedatzea** (erakundeen artekoa).
- **Gasteizko Elektromugikortasuneko Zentroa** (Gasteizko Udala).
- **Erdi Aroko hirigunearen naturalizazioa** (Gasteizko Udala). Erdi Aroko hirigunea berdartzera eta naturalizatzerazuzendutako jarduketak, hiriko bero-uharteak arintzea, osasuna ahalbidetzea, ingurumena hobetzea eta berdeguneen erabilera publikoa sustatzea lortzeko.

- **Eskola-patioen naturalizazioa** (Gasteizko Udala). Eskola-patioak hiriko sistema berdearen elementu gisa naturalizatzeko proiektua, leku inklusiboagoak, hezkidetzara bideratutakoak, jasangarriagoak eta naturalizatuagoak izan daitezzen.
- **Bizkaia Gara, boluntarioen sare zibila** (Bizkaiko Foru Aldundia).

## ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

<b>GJH 11 Adierazleak</b>	<b>Oinarri- datua</b>	<b>Azken datua eta tendentzia</b>	
Etxebizitzan gabezia jakin batzuk dituzten familia-etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa (%)	<b>11,80</b>	<b>10,46</b>	
Artifizializatutako lurzorua azalera (%)	<b>6,89</b>	<b>6,95</b>	
PM2,5en batez besteko maila hirietan, biztanleriaren arabera haztatuta ( $\mu\text{g}/\text{m}^3$ )	<b>10,07</b>	<b>10,42</b>	





# GJH 12

## Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea

### ODS 12 - Edukien laburpena

---

#### Legegintzako Ekimenak

- 4/2023 Legea, kontsumitzaile eta erabiltzaileen Estatutuarena.

#### Plangintza-Tresnak

- Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategia (2030).
- Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa (2030).
- Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Plana (2030).
- Kontsumobideren Plan Estrategikoa (2022-2024).

## JARDUEREN BETETZEA

# GJH 12: Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea




---


### ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Basque Ecodesign Center** (Eusko Jaurlaritza). Euskal industria-ehunera transferi daitekeen ekonomia zirkularraren inguruko ezagutza sortzen lan egiten du zentro horrek, Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategian ezarritako lehentasunezko esparruetako berrikuntzaren bitartez.
- **Tokiko esparrutik ekonomia zirkularra eta lehiakortasuna bultzatzea** (Udalsarea 2030). Proiektu horren helburua da ekonomia zirkularraren kontzeptua tokiko eta eskualdeko esparruan praktikan jartzea, tokiko munduari aplikatzekoak diren orientazio praktikoak garatuz eta partekatuz, ekonomia zirkularra hainbat mailatan bultzatzeko eta sustatzeko, bai administrazio publikoaren beraren esparruan, bai gizarte- eta enpresa-ehunean inplementatzea ahalbidetuz.
- **Ekonomia Zirkularraren Huba** (Gasteizko Udala). Hub horrek tokiko arlotik bultzatzen du Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategia (2030), Gasteizko Udalaren beraren estrategia, "Gasteizko Ekonomia Zirkularraren Estrategia (2030)" izeneko, abiapuntu hartuta.
- **"Elikagai-xahuketarik ez", jatetxeetan elikagai-xahuketa murrizteko gida** (Gasteizko Udala).
- **Konpondu proiektua** (Gasteizko Udala). Proiektu horrek herritarren egungo kontsumo-ereduaren aldaketa sustatzen du, konponketaren tokiko sektorearen bitartez produktuen bizitza baliagarria luzatzeko.
- **"Deskarbonizazio industrialeko programa"** (Eusko Jaurlaritza). Deskarbonizazioaren bidez ekoizpen-prozesu industrialetan ingurumenaren babes-maila hobetzen duten inbertsioak egiten dituzten enpresa industrialentzako dirulaguntzen programa.

- **Ingurumen Jasangarritasunaren arloko Berrikuntzarako Enpresa Kasu Praktikoek Bankua** (eragile anitzekoa).
- **Udallerriak konposta egitea bultzatzea** (Donostiako Udala). Etxean konpostatzen laguntzeko zerbitzua eta auzoan konpostatzeko azpiegiturak sortzea.

## ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

<b>GJH 12 Adierazleak</b>	<b>Oinarri-datua</b>	<b>Azken datua eta tendentzia</b>	
Materialen kontsumoa BPGaren arabera (T (milioi €))	<b>347,40</b>	<b>332,60</b>	
Sortutako hondakin arriskutsuak per capita (kg)	<b>150,82</b>	<b>144,66</b>	
Birziklatutako hiri-hondakinen proportzioa, sortutako eta tratatutako hiri-hondakin guztiekiko (%)	<b>36,44</b>	<b>47,23</b>	







# GJH 13

## Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko

### GJH 13 - Edukien laburpena

---

#### **Legegintzako Ekimenak**

- 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.
- Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Lege-proiektua.
- 11/2023 Legea, Euskadiko mugikortasun jasangarriarena.

#### **Plangintza-Tresnak**

- 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia.
- Ingurumeneko V. Esparru Programa (2030).
- Euskadiko Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana.
- Ingumena Ikuskatu eta Kontrolatzeko Plana (2019-2026).
- Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia (2030).

## JARDUEREN BETETZEA

# GJH 13: Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko



---


### ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK


- **Alkateen Klima eta Energia Ituna** (Eusko Jaurlaritza eta udalak). Ekimenak honako hauek sustatzen ditu: klima eta energiaren tokiko planak udal- eta eskualde-mailan hedatzea; udalerriko eta/edo eskualdeko BEG inbentarioak eta udalen eta eskualdeko erakundeen karbono-aztarna kalkulatzeko urteko tresnak diseinatzea, mantentzea eta eguneratzea; eta EAEko udalerriek trantsizio energetikoarekin eta klima-aldaketarekin hartutako konpromisoa sozializatzea.
- **100 Hiri Adimendunen eta Klimatikoki Neutroen Europako Misioan parte hartzea 2030ean** (Gasteizko Udala). Hiri Adimendunen eta Klimatikoki Neutroen Misioak aukeraturako ehun hiriak beste guztien erreferente izango diren esperimantazio- eta berrikuntza-zentro bihurtu nahi ditu. Modu horretan, hiri horien adibideari jarraituz, Europako hiri guztiak karbono-neutroak izatea lortu nahi du 2050erako.
- **Hiri barruko autobusen elektrifikazioa** (udalak).
- **Azpiegitura berdeen sareak** (foru-aldundiak eta udalak).
- **Garapen jasangarria sustatuko duten ekintzak gauzatzen dituzten toki-erakundeentzako laguntzen programa. Klima-aldaketaren ildoak** (Eusko Jaurlaritza).
- **Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa (2030)** (Eusko Jaurlaritza). Klima-aldaketaren kontrako borroka, baliabide naturalen erabilera efizientea edo ekoberrikuntza bezalako helburuak lortzeko zeharkako tresna da programa hori.

- **Klima-aldaketarako tresna eta lanabesen kita, administrazio publikoei, enpresei eta herritarrei klima-aldaketak sortzen dituen inpaktuetara egokitzen laguntzeko** (Eusko Jaurlaritza).
- **Eskolako 2030 Agenda eta Lanbide Heziketako 2030 Agenda programak** (Eusko Jaurlaritza).

## ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

<b>GJH 13 Adierazleak</b>	<b>Oinarri-datua</b>	<b>Azken datua eta tendentzia</b>	
Unitate egoiliarren berotegi efektuko gasen guztizko isurtzeak BPGko unitate bakoitzeko (CO2 kg baliokide)	<b>0,28</b>	<b>0,24</b>	
Berotegi-efektuko gasen emisioa, 2005. urtearekin alderatuta (%)	<b>-23,82</b>	<b>-30,50</b>	





# GJH 14

**Ozeanoak, itsasoak eta itsas  
baliabideak mantentzea eta  
modu jasangarrian erabiltzea,  
garapen jasangarriari begira**

## JARDUEREN BETETZEA

# GJH 14: Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea, garapen jasangarriari begira

---


### ZERBITZU, PROGRAMA ETA PROIEKTU NABARMENENAK

- **Arrantza jasangarria sustatzeko eta Euskadiko arrantza- eta akuikultura-sektorean belaunaldi-erreleboa errazteko laguntzen programa** (Eusko Jaurlaritza). Laguntza horien helburua da garapen teknologikoan, energia-efizientzian eta giza kapitalean oinarritutako sektore jasangarri eta berritzaile bat sustatzea, eta arrantzan eta akuikulturan belaunaldi-erreleboa erraztea, sektorearen etorkizuna bermatzeko.
- **Itsasontziek arrantza-aparailu tradizionalekin harrapatutako berdelarentzako Eusko Labela** (Eusko Jaurlaritza). Ekimen horren bitartez Eusko Labelarekin identifikatuko da itsasontziek Euskadiko arrantza-aparailu tradizionalekin harrapatutako oso kalitate handiko berdela.
- **Oarsoaldea Urdina Huba, Ekonomia Urdinaren erronkak eta aukerak identifikatzeko espazio teknologiko lehiakorra sortzeko gunea** (erakundeen artekoa). Hub horren helburua da Ekonomia Urdinaren erronkak eta aukerak identifikatzeko espazio teknologiko lehiakorra sortzea —erakunde eta enpresena—. Horretarako, jarduera ekonomikoa eta garapen soziala bultzatuko ditu, itsasoaren eta haren baliabideen ustiapen jasangarriagoan aurrera egingo duten proiektuen bitartez.

